

BALOREZKO PROPOSAMENA

Proiektuaren izena: ElkarLan

Proiektuaren deskribapena: Gure proiektua gaur egungo kutsadura murrizteko sortu da. Horrela aldaketa klimatikoaren aurka ekingo dugu. Horregatik, MendiGarbi izeneko makina diseinatuko dugu. Makina hau, edozein lekutatik ibili daiteke eta helburu nagusia mendian dagoen zaborra detektatzea da. GPS a dauka makina honek eta zaborra aurkitzerakoan, notifikazio bat helduko zaizu mugikorrera, zaborra non dagoen jakiteko. Horrela, bertara abiatuko zara zaborra biltzera makina honi esker. Gainera aplikazio bat sortuko dugu. Edozein pertsona parte hartu dezake. Ideia nagusia, denon artean lan egitea da hainbat ariketa desberdin eskainiz. Boluntariora lana moduan lan egin nahi dutenek, aukera hau daukate: Aplikazioa ireki bezain laster zure inguruan bizi diren pertsonekin harremanetan ipiniko zaitu. Horrela, kedadak antolatuko dituzue asteburu bakoitzean eta kolaboratzeko prest egongo zarete. Aplikazioaren helburua, hurbil dagoen jendearekin elkartzea da ahalik eta hurbilen joateko (zaborra biltzeko zuen MendiGarbi makinekin). Zabor kantitate jakin bat biltzea lortutakoan, udaletxeak, beherapenak eskainiko dizkizu produktu jakin batzuetan.